



# ARANTZAKO UDALA

## ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHIKO PROZESUARI DAGOZKION LANPOSTU HUTSAK MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA

### MEREZIMENDUEN BEHIN-BEHINEKO BALORAZIOARI BURUZKO AKTA

Arantzan, 2023ko uztailaren 18an.

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2023ko uztailaren 18an.
- **ORDUA:** 11:30
- **BERTARATUAK:**
  - Epaimahai burua: Dabid Iturria Almandoz
  - Mahaikidea: Jose Joaquin Urreta Arribillaga
  - Mahaikidea-idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

Epaimahai Kalifikatzailea bildu da, aldi barerako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko merezimenduen behin-behineko balorazioa egiteko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Baloratuko diren merezimenduak, deialdiaren 7. oinarrian xedaturikoaren arabera, honako hauek dira:

***“7.–Merezimendu-lehiaketaren bidezko salbuespenezko prozeduraren nondik norakoak: baloratuko diren merezimenduak.***

**a) Merezimendu profesionalak: gehienez ere 60 puntu.**

*Administrazio publikoetan deialdia argitaratzen den egunera arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 60 punturekin, puntuazio honen arabera:*

*a.1) Deialdia egiten duen toki erakundean eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko lanpostu berean, egindako zerbitzuak: 3 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.*

*a.2) Beste administrazio publiko batzuetan lanpostu berean egindako zerbitzuak: 0,75 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.*

*(...)*

**b) Beste merezimendu batzuk, gehienez ere 40 puntu:**

*b.1) Deialdia egiten duen toki erakundean eta haren erakunde autonomoetan deialdi honen xede den lanpostu berean sartzeko prozesu bat gainditu izana, lanposturik eskuratu gabe, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratutako deialdietan: 28 puntu lanposturik eskuratu gabe gainditutako deialdi bakoitzeko.*

*b.2) Ingelesa, frantsesa eta alemana:*

*Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez denean eta ezaugarrien taularen arabera: 12 puntu gehienez ere.*

*(...)*



# ARANTZAKO UDALA

*d) Behin merezimenduen balorazioa aurreko atalek ezarritakoari jarraikiz eginda, ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa frogatzen duten pertsonak lorturiko puntuazioari 1,5 puntu gehituko zaizkio guztira, zuzenketa-faktore gisa.”*

Izangaiek egindako merezimenduen autobalorazioa ikusi eta egiaztatu ondoren, hau izan da lortutako puntuazioa:

HAUTAGAIA	Merezimendu profesionalak		Bertze Merezimendu batuzk		Zuzenketa faktorea	GUZTIRA
	a.1.	a.2.	b.1.	b.2.		
ESTIBALIZ URCHEGUI TELLETXEA	6,86	-	-	-	-	6,86

Ondorioz, Epaimahai Kalifikatzaile honek erabaki du:

- 1.- Akta hau Arantzako Udalaren web guneko egonkortze prozesuko dagokion estekan argitaratzea.
- 2.- Bortz egun balioduneko epea ematea interesdunek, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

**EPAIMAHAI BURUA,**

**MAHAIKIDEA,**

**MAHAIKIDEA-IDAZKARIA,**

Dabid Iturria Almandoz

Jose Joaquin Urreta  
Arribillaga

Nagore Madariaga Iriarte